

K3 MODULUA: KOMUNIKAZIORAKO TRESNAK

IKASLEAREN GIDA
HAUR HEZKUNTZA

Zentroa: Hezkuntza eta Kirola Fakultatea

Moduluaren izena: Komunikaziorako tresnak

Ikasturtea: Bigarrena

Lauhilabetekoa: Lehenengoa

Koordinatzailea: Iratxe Antonio-Agirre

1. MODULUAREN KONPETENTZIAK ETA GARAPEN IRAUNKORREKO HELBURUAK

Diziplinarteko lan honek eskatzen dituen jarduerak eginez gero, ikasleak hurrengo helburuak eta konpetentziak lortuko dituzte (1. TAULA).

1. TAULA. Komunikaziorako Tresnak Lan Interdiziplinarrean Lortuko Diren Garapen Iraunkorreko Helburuak (GIH) eta Konpetentziak.

		GIH3	GIH4	GIH5	GIH18
		Osasuna eta ongizatea	Kalitatezko hezkuntza	Genero berdintasuna	Hizkuntza eta kultur aniztasuna
Jarduerak	Moduluaren konpetentzia				
Txosten idatzia	M1. Ezagutza praktikoa lortzea, haurren egunerokotasun errealitatea behatzeko, datuak jasotzeko eta balioesteko teknikak erabiliz, ikasleen kalitatezko alfabetizazio zientikoa lortzeko.		X	X	
Txosten idatzia	M2. Haurrentzako baliabide digitalek hezkidetzan eta ongizatean izan ditzaketen eraginak ezagutu, balioetsi, horiek sustatzen dituzten estrategiak planifikatu, abiarazi, ebaluatu eta berrosatzeko.	X	X	X	
Txosten idatzia eta aurkezpena	M3. Informazio eta Komunikazio Teknologia (IKT) erabiltzea, era guztietako baliabide grafikoak eta multimediak erabiliz, norberak ikasteko eta lankidetzan aritzeko, ezagutza eraldatzeko, eta alfabetizazio digitala sustatzeko.		X		
Txosten idatzia eta aurkezpena	M4. Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) bi hizkuntza ofizialen komunikazio konpetentziak garatzea, Europako erreferentzia markoko B2 maila lortu arte.				X

2. DIZIPLINARTEKO LANAREN GAIA: PANTAILEN ERABILPENA ETA ERAGINA HAURTZAROAN

Diziplinarteko lan honen bidez nagusiki ikasleek ikuspegi zabal bat lortuko dute pantailek euren egunerokotasunean eta hezkuntzan duten inplikazioaz, haur hezkuntzari dagokionez. Lanaren aberastasunak praktikarekin hartu-emana izateko aukera ematen du, eta hala, prestaketa eta hausnarketa teorikoa osatu egingo da behatze eta aurkikuntzekin.

Proposatutako lanerako dokumentuek agertzen dutenez (ikusitako erreferentziak), benetan kezkatzekoa da haurrek telebistaren eta bestelako pantailen aurrean igarotzen duten ordu kopurua, urte osoa aintzat hartuta eskolan pasatako denbora baino gehiago izaten baita. Hori kezagarria izanik, beste kezka eragile batzuk ere badira: eduki askok duten heziketa-xede eskasa eta haurrek benetakoa eta asmatua bereizteko izan dezaketen zailtasuna, besteak beste. Zailtasun hori are larriagotu daiteke haurrak bakarrik badaude; hau da, guraso, aitona-amona edo bestelako zaintzailerik ez badago, pantailan agertzen denaren eta eguneroko jardunean berak bizi duenaren artean bereizten lagunduz.

Pantailek haurren heziketan eta hezkuntzan duten eraginaz ikuspegi zabal bat eduki nahiak nahitaez garrantzitsuak lehen hausnarketa teoriko batera. Hausnarketa horrek bide eman behar du errealitate gerturatzeko. Errealitate hurreratzearen xedea egunero haurrei eskaintzen zaizkien eduki motak ezagutzea da, eta haien azterketa zehatzago bat egitea, irizpide jakin batzuen arabera: kulturaren irudia, generoaren tratamendua, sexualitatea, bortizkeria, pertsonen arteko harremanak, nortasunaren eraikuntza, besteak beste.

Errealitate honetara hurbiltzeko, gaiari buruzko hurbilketa teoriko eta praktikoa egingo da. Bibliografia zientifikoaren lehen azterketa egin ondoren, haur hezkuntzako haurrek erabili ohi dituzten baliabide bisualak aztertu beharko dira. Azterketa kritiko horrek, aurretik landutako ebidentzia zientifikoan oinarritutakoa, moduluko ikasleei hausnarketa kritiko bat egiten lagunduko die, txosten zientifiko bat sortzera eramango diona.

Ebidentzietan oinarritutako hausnarketa kritiko honek erronka profesionalaren aurrean jarriko du ikaslea, eta horixe lortu nahi da, hain zuzen, diziplinarteko lanaren bidez: **irakasle rolean jarri eta behatze aktiboaren bidez lortutako datuetan oinarriturik, moduluko ikasleek txosten zientifikoak idatzi eta ahozko aurkezpen bat egin beharko dute pantailen kontsumo arduratsuaz, ohitura osasungarriez eta erabilpenaz**. Aurkezpena ikastetxeetako Guraso Elkartei zuzendua izango da eta komunikazio egoera hori simulatuz egingo da; datu orokorretara mugatzeaz harago, gomendioak eskaintzen saiatu behar da, bildutako informazio dokumentalaren arabera.

Bestetik, gure unibertsitateak *EHU 2030 Agendan* hartutako konpromisoak jarraituz, modulua GIHekin lotzen da. Ikasleei lau helburuetan sakontzeko aukera ematen die: *osasuna eta ongizatea; kalitatezko hezkuntza; genero berdintasuna; eta hizkuntza eta kultur-aniztasuna*. Hala nola, Haur Hezkuntzako haurrentzako *osasunerako eta ongizaterako* (GIH-aren 3.

helburua) gomendioak eta estrategiak planifikatzeko aukera eskaintzen du lan honek. Izan ere, aurrekari teorikoen eta behaketaren bidez, pantailek haurrengan izan ditzaketan eraginak eta horietan transmititzen diren eduki, balio eta estereotipoetaz jabetzeko aukera izango dute moduluko ikasleek. Horrekin batera, alfabetatze zientifikoa eta digitalaren inguruko kompetentziak ere eskuratzeko aukera izango dute. Landuko den beste helburua laugarrena izango da, *kalitatezko hezkuntza*. Izan ere, moduluaren azken helburua ez da soilik pantailak gaizki erabiltzeak ekar ditzakeen arazoak eta arriskuak identifikatzea, baizik eta egunerokoan ohikoak diren pantailen erabilera arduratsua sustatzen duten bizimoduak aztertzea ere. Gainera, bosgarren helburuarekin, hots, *genero berdintasunarekin*, berebiziko harremana izango du moduluko lanak. Ikasleek Haur hezkuntzako etapako umeek kontsumitzen dituzten edukietan esleitzen diren genero rolak eta estereotipo sexistak ikuspegi kritiko batez landu beharko dituzte. Azkenik, *hizkuntza eta kultur-aniztasuna* ere lantzerik izango dute moduluko ikasleek, EAEko bi hizkuntza ofizialak izango baitituzte informazio iturburu.

3. ENTREGAIAK

Modulu astean egindako lanaz gain, moduluak bi entregai garrantzitsu izango ditu: *txosten zientifikoa* eta *ahozko aurkezpena*.

1. *Txosten* idatziak lan zientifikoaren egitura bera jarraituko du, APA7 arauak ardatz izanik: marko teorikoa, testuingurua, metodologia, emaitzen analisia, ondorioak eta gomendioak, erreferentziak eta eranskinak.
2. *Aurkezpenean* txosten idatzian landutako atal eta eduki berdinak jorratu beharko dira, baina komunikazio-egoera zehatz batera egokiturik: irakasle izanik, Guraso Elkarteko kideei zuzendutako hitzaldia.

3.1. Txosten zientifikoa

Moduluaren oinarri garrantzitsuenetakoa bat bada egindako lan guztiak izan behar duen izaera zientifikoa. Alderdi hori are gehiago islatu beharko da egingo den idatzizko txostenean, 9 orrialdetan (portada, erreferentziak eta eranskinak kontuan hartu gabe) gehienez, artikulua zientifikoa baten egitura jarraituz:

Azala: izenburua, egileak, laburpena eta gako hitzak.

Marko teorikoa.

Metodoa: helburuak, lagina, tresnak (behaketa-erregistroak), prozedura eta analisia.

Emaitzak.

Ondorioak eta gomendioak.

Erreferentziak.

Eranskinak.

Marko teorikoa gauzatzeko, ikasleek eskura izango dituzte irakasleek emandako **lau nahitaezko argitalpen zientifiko** (erreferentzien atalean eskura). Horiez gain, taldeek gutxienez **beste lau artikuluko zientifiko** landu beharko dituzte marko teorikoa osatu ahal izateko. Landuko diren nahitaezko artikuluek lanean zehar jorratu behar diren edukiak zehazteko gakoak ematen dituzte. Beraz, **nahitaezkoa izango da irakurri diren artikuluen gai nagusiak lanean agertzea**. Adibidez, ondorengo gidan puntu hauek iradokitzen ditugu, moduluko irakasle bakoitzak egokienak gomenda baditzake ere:

Telebista eta bestelako pantailak, inguru kulturalaren parte.

Zer esan nahi dugu telebista hezitzailea diogunean?

Programa hezitzaileak / programa ez hezitzaileak.

Pantailek haurren garapen kognitiboan, hizkuntzarenean, fisikoan, sozioemozionalean eta jarreran duten eragina.

Imitazioa eta honen garrantzia nortasuna garatzerakoan.

Heziketarako edukien azterketa eta balioespena telebistan:

Kulturaren irudia.

Genero tratamendua.

Sexu edukia.

Bortizkeria edukia.

Haurren jokabidean izan dezakeen ondorioa.

Azkenik, metodoaren atalean ikasleek aurrera eramango duten ikerketa nola egingo duten azalduko dute; alegia, jarraituko duten metodoa. Emaitzetan, behaketa-erregistroetan jasotako datuak deskribatuko dituzte. Ondorioetan, aldiz, lortutako emaitzarik garrantzitsuenak baloratuko dituzte, horien zergatia proposatuz eta marko teorikoan jasotako egileen/teorien bitartez justifikatuz. Ondorioen atalak pantailen erabilera positiborako gomendioak ere jasoko ditu, baita ikasleek egindako ikerketak izandako mugak eta etorkizunerako hobekuntzak ere.

3.2. Ahozko aurkezpena

Txosten zientifikoan bildutako informazioa ahozko aurkezpen baten bidez ere adieraziko da, simulazio bat eginez. Aurkezpena egin ahal izateko, PowerPoint bat edo antzeko euskarri bisual bat erabiliko da. Jarduera honekin hezkuntzako testuinguru formaleko ahozko komunikazioari lotutako hainbat eduki teoriko praktikara ekarriko dira. Aurkezpen horietan hizlariak aditu nahiz zuzendaritza rola hartu beharko dute eta Guraso Elkarteko kideei ariko

balitzaizkie bezala mintzatu beharko dira.

Aurkezpen bakoitzak, gehien jota, 15 minutuko iraupena izango du. Aurkezpenaren ostean galde-erantzunetarako 10 minutu ere izango dira.

4. AURREIKUSITAKO LAN FASEAK

4.1. Kronograma

Jarraian adierazitako egutegian (2. TAULA) gauzatuko dira K3 Komunikazio Tresna Lan Interdiziplinarraren egitekoak.

2. TAULA. K3ko Kronograma.

	Astea	Eginbeharrak	Entregaiak
Iraila	1	<ul style="list-style-type: none"> . Moduluaren aurkezpena . Taldeen osaketa . Artikuluen irakurketa indibiduala 	<i>Talde kontratua</i>
	2	Modulu astea	Artikuluen ideia nagusiak Entregai nagusia: <ul style="list-style-type: none"> . Txosten zientifikoaren eskema (marko teorikoan egon behar da astean zehar landutakoa) . Behaketa-erregistroaren diseinua . Jarduera komunikatiboak . A koebaluzioa
Haur Hezkuntzako I. Praktikaldia (3.-7. asteak)			
Urria	8	Txostenaren osaketa eta azken aldaketak egin	Behin-behineko txostena: <ul style="list-style-type: none"> . Txosten teorikoa . A koebaluzioa
Az	9	Astean zehar irakasleen feedbacka jaso	

	10	Astean zehar irakasleen feedbacka jaso	
	11		
	12		
Abendua	13		Behin-betiko entrega: . Txosten teorikoa . B koebaluazioa
	14	Aurkezpen astea	*aurkezpena
	15	Aurkezpen astea	*aurkezpena

4.2. Hiru lan faseak

1. DOKUMENTAZIO FASEA (PRAKTIKALDIKO EGONALDIA BAINO LEHEN): 1. eta 2. asteetan

Lehenengo astean taldeak sortuko dira, eta bigarren astean *K3 modulu astea* izango da. Modulu astean modulua bera osatzen duten ikasgai guztietan K3ko edukiak landuko dira. Nahitaezkoa izango da klaseetara etortzea, bertan irakasleek modulua aurrera ateratzeko baliabideak eta gomendioak emateaz gain, taldeetan sortzen diren arazoak bideratu eta galderak erantzungo baitituzte.

Lehen fase honetan, lana gauzatu ahal izateko oinarriak finkatuko dira. Alde batetik, esparru teorikoari lehen hurbilpena egingo da, derrigorrezko irakurgaiak landu ez ezik, lan zientifiko baten gakoak ezagutu eta informazio iturri egokiak erabiltzeko gaitasuna ere garatuko baita. Bestetik, lanean beharrezko izango diren ikerketarako erremintak osatuko dira, hala nola, behaketa metodologia:

- Haurtzaroaren Psikologia:
 - Nahitaezko bi artikuluen lanketa.
 - Behaketa metodologia.
- Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezagutza:
 - Nahitaezko bi artikuluen lanketa.
 - Genero estereotipoak eta kultura-balioak.

- Komunikazio Gaitasunaren Garapena II:
 - Gaitasun komunikatiboa (ahozkoa eta idatzia).
 - Bilaketa zientifikoak, APA7.
 - Artikulu baten egitura eta marko teorikoa.

2. BEHAKETA ETA DATU BILKETA FASEA: 3. - 7. asteetan

Aste hauetan, ikerketa-fasea egingo da. Esparru teorikoa landu eta pantailek haurtzaroan duten eraginaren funtsezko elementuak finkatu ondoren, haur hezkuntzako gure ikasleen eskura dauden baliabideetako batzuk aztertuko dira. Analisi honetan marko teorikoan islatutako gai nagusiak egon beharko dira, horien artean, berebiziko garrantzia izango dute **genero ikuspegiak, garapen psikologikoak** eta **giza balioek**.

Ikerketa egin ahal izateko, taldeak **bi ikus-entzunezko baliabide** aukeratu eta aztertu beharko ditu: bat derrigorrez moduluko irakasleek eskainitako zerrendatik aukeratu beharko da; bestea, taldeak aukeratutako beste baliabide bat izan daiteke (irakasleak aukeratutako baliabide horren egokitasuna baloratuko du). Horietako bat gutxienez euskaraz egon beharko da. Analisia egiteko, modulu astean egindako behaketa-taula erabiliko da. Nolanahi ere, nahitaezkoa izango da analizatuko den **ikus-entzunezko bi material horien iraupena guztira gutxienez 40 minutukoa izatea**.

3. INFORMAZIOAREN ANTOLAKETA, LANKETA TXOSTEN ZIENTIFIKO BATEAN ETA GURASO ELKARTEARI GOMENDIOAK EMATEKO AHOZKO AURKEZPENA FASEA: 8. - 15. asteetan

Praktikalditik bueltan txosten zientifikoa garatu beharko da, aste horietan behaketaren bidez lortutako datuekin. Ikasleek **bi entregai** eman beharko dituzte: behin-behinekoan irakasleen feed-backa jasoko dute, behinbetiko lana entregatu baino lehen beharrezkoak diren aldaketak edo hobekuntzak egin ahal izateko.

Abenduan Guraso Elkarteentzako gomendioekin egin beharreko ahozko aurkezpena landuko da. Aurkezpen honek ikasleen hausnarketa eta sintesirako ahalmena eta komunikazio gaitasun grafikoa eta bisuala neurtzeko balioko du.

Esan bezala, ikasleek, aditu eta zuzendaritza taldeko rola hartuz, ahozko azalpen bat eman beharko dute Guraso Elkartearen aurrean; azalpen horrek bai ahozko kompetentzia bai hartzailearen araberrako diskurtsoaren egokitasuna neurtzeko balioko du.

Hirugarren fase honek diziplinarteko lan hau egitean ikasleek aurrean duten erronka profesionala burutzen du.

5. LANERAKO METODOLOGIA

Lan interdiziplinar hau taldeko zeregin kooperatiboa izanik, ikasleek Haur Hezkuntzako graduko 2. mailako 1. lauhilabete honetan dituzten irakasgaietan lortutako gaitasunak trebatzeko eta sustatzeko aukera izango dute, metodo zientifikoa jarraituta. Horretarako, analisirako, sintesirako eta trebetasun zientifikoak erabilita, lortutako informazioa adieraziko dute, formato akademikora egokituz. Horrela, egindako txosten zientifikoa sortuko den ahozko aurkezpenaren oinarria izango da.

5.1. Funtzionamendu praktikoa

Moduluko diziplinarteko lana 4 ikasleko taldetan egingo da. Taldeak lehen astean egingo dira, honako prozedura jarraituz: ikasleek eurek osatu dituzte lan-taldeak. Taldeak talde-kontratu bete beharko du, non bakoitzaren rola adieraziko den. Gainera, kontratu hau koebaluazioak egiteko gida bezala hartu beharko da.

Talde bakoitzak irakasle taldea osatzen dutenen artean tutore bat izango du. Tutorearekin harremanetan jartzeko bozeramailearen papera garrantzitsua da, hura izango baita mezu garrantzitsuak bidaltzeko arduraduna.

5.2. Diziplinarteko lanaren garapen metodologikoa

Moduluaren oinarrietako bat praktika-aldian bitartean egin beharreko ikerketa izango da. Horretarako, praktikaldiaren aurretik informazio iturri primarioen bilaketen eta irakasleek eskainitako nahitaezko irakurketen bitartez pantailek haurtzaroan duten eraginaz jabetuko dira ikasleak. Aurretiko informazioaren (ikasleek egindako bilaketa eta irakasleek eskainitako irakurgaiak) eta praktikaldian betetako behaketa-erregistroaren bitartez lortutako informazioa oinarri gisa harturik ikasleek idatzizko **txosten zientifikoa** gauzatuko dute, irakasleek emandako argibideen arabera.

Txostena egin eta gero, azken pausoa **Guraso Elkarteari zuzendutako ahozko aurkezpena** egitea izango da. Beraz, hizlariak aditu eta zuzendaritza taldeko kidearen rola hartu beharko dute, eta entzuleek guraso taldearena. Horretarako, euskarri bisual bat sortu beharko da, gurasoen aurrean egingo den aurkezpenaren oinarria izan dadin. Edukiak barneratu diren ala ez kontuan hartuko da, baina azken fase honetan garrantzia berezia emango zaio ahozko komunikazio gaitasunaren garapenarekin lotutako edukiak praktikara ekartzeari. Ahozko azalpena moduluen atal garrantzitsu bat da. Izan ere, gurasoei egin beharreko aurkezpen honetan, hilabeteetan zehar garatu den ikerketa eta sortu den txosten zientifikoa ikus daiteke laburbilduta, izandako garapenetik ikerketa gauzatu ondoren lortutako emaitzetaraino.

6. MODULUKO LANAREN EBALUAZIOA: alderdi orokorrak

Ebaluatzeko bi modalitate egongo dira, bata aurrez aurreko ikasleentzat eta bestea aurrez aurreko ez diren ikasleentzat. Aurrez aurreko ebaluazioa egin ahal izateko, irakasgai guztietan ebaluazio mota hau aukeratu beharko da. Ikasleren batek irakasgai batean etengabeko ebaluazioari uko egiten badiu, azken ebaluazioa egiten duten ikasleentzat aurreikusitako planteamendua jarraituko da moduluko ebaluazioan.

Bestetik, moduluetakoa akordio gida jarraituz, gogoarazten da hiru irakasgaietan baino gutxiagotan matrikulatuta dauden ikasleek ez dutela K3 modulua egin beharko.

Etengabeko ebaluazioa

Lana 4 ikasleko taldetan egingo da.

Aurrez aurreko ikasleak erreferentziatzen hartuko du ikaslearen gida honetan zehaztutako **lanaren kronograma**.

Modulu lana egiteak **txosten zientifikoa eratzea** eskatzen du eta **Guraso Elkarteei zuzendutako gomendioak ematea eta azaltzea**.

Lanaren orokortasunari erantzuteko, ezinbestekoa da lanean modulua osatzen duten diziplinen **ikuspegi guztiak** kontuan hartu eta islatzea. Izan ere, horregatik du diziplinarteko izaera (Moduluetakoa akordio gida).

Modulu-lanaren kalifikazioa modulua osatzen duten **ikasgaiaren kalifikazioaren bi puntu** izango da (% 20a). Kalifikazio hau moduluko irakasle guztiek adostuko dute eta diziplina bakoitzaren ebaluazioari gehituko zaio. Lana gaindituta baldin badago eta irakasgaia gainditu gabe, LANAREN NOTA GORDE EGINGO DA IRAKASGAIK GAINDITU ARTE.

Modulu lanean **plagioa** antzemanaz gero, lana automatikoki suspendituta egongo da, eta hurrengo deialdietan azken ebaluazio sistemaren bidez ebaluatuak izango dira inplikaturako ikasleak (Moduluetakoa akordio gida).

Aurrez aurreko ikasleek lana gainditzeko ez badute (3. TAULA), hurrengo deialdirako entregatu beharko dute (lana berriro zuzenduko da taldean). **Modulua giltza den irakasgaietan, ikasleak irakasgai hori suspendituta izango du modulua gainditu arte.**

Bi atalak (idatziko txostena eta aurkezpena) gainditu beharko dira moduluko lana gainditzeko.

Prestakuntza-ebaluazioa lortzeko, moduluko irakasleek azaroan entregatzen den behineko dokumentuaren feedbacka emango dute. Talde bakoitzak tutore bat izango du, eta honek lana zuzendu eta egin beharreko hobekuntzak gomendatuko dizkio. Irakasle guztiek mintegi bat egingo dute beren irakasgaiaren ordutegian, zuzendutako lanetan aurkitu dituzten akatsekin eta proposaturako hobekuntzekin. Horrez gain, eta beharrezkoa izanez gero, tutoretza

pertsonalizatu bat izateko aukera egongo da, baina tutoretza hori egiteko ***nahitaezkoa izango da feedbacka ematen den mintegi orokorrera joatea***; bestela, tutoretza pertsonalizatua izateko eskubidea galduko da. Izan ere, ulertzen da txostena ebaluazio jarraia egiten dutenentzat dela, hots, klasera normalean etortzen diren ikasleentzat.

3. TAULA. *Etengabeko Ebaluazioko Atalen Ebaluazioa.*

Idatzizko atala	% 60a (koebaluazioa % 10a)
Aurkezpena	% 40a (koebaluazioa % 10a)

Azken ebaluazioa¹

Aurrez aurreko ebaluazioan parte hartu ez duen ikasleak azterketa egun ofizialean egin beharko du modulua ebaluatzeko. Proba horrek hiru atal izango ditu. Batetik, atal teorikoan nahitaezkoak diren artikulak ez ezik, beste irakurgai osagarriak ere aztergai izango dira. Bestetik, kasu praktikoa bat egongo da eta horren inguruko galderak erantzun beharko ditu ikasleak. Azkenik, ahozko frogak bat egongo da. Ahozko frogaren data frogak egin behar duten ikasle kopuruak baldintzatuko du (azterketa data ofizialean edo lauhileko azken astean izan daiteke).

7. ERREFERENTZIAK

Nahitaezko irakurketak

Espinar, E. (2007). Estereotipos de género en los contenidos audiovisuales infantiles. *Comunicar, Revista de Comunicación y Educación*, 29, 129-134.

González-Anleo, J. M., Cortés del Rosario, M., eta Garcelán Vargas, D. (2018). Roles y estereotipos de género en publicidad infantil. ¿Qué ha cambiado en las últimas

¹ Graduako ikasgaietan azken ebaluazioren bidez ebaluatutako izateko prozedimendua gogoarazten da. Konkretuki, inplikaturako irakasleei [etengabeko ebaluazioari uko egiteko eskaera](#) idatziz luzatu beharko zaie (9. astea baino lehen lauhileko irakasgai kasuan, eta 18. astea baino lehen ikasturte osoko irakasgai kasuan).

décadas?, *aDResearch: Revista Internacional de Investigación en Comunicación*, 18, 80-99.

Reizabal, L. (2012). Beste hezkuntza testuinguru batzuk: Ikus-entzutezkoak. In J. Acha eta L. Reizabal (Koordk.), *Hezkuntza sozioemozionala eta ikaskuntza-zailtasunak: hezkuntza testuinguruetan aplikatzeko esku-hartzea* (141-151 orr.). UEU.

Torres, E., Conde, E., eta Ruiz, C. (2001). La influencia de las pantallas en el desarrollo socioafectivo. In F. López (Koord.), *Desarrollo afectivo y social* (285-302 orr.). Pirámide.